

MIKEL BEGOÑA • KIKE INFAME • DANIEL GOJÉNOLA

# ERMUA

*binetetan*



1794. MARTE EROTURIK



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUA HIRIKO UDALA

## ERMUA, ISTORIOEN UNIBERTSOA

Ermua istorio eta pertsonaia txikiz betetako unibertsoa da. Une horietako batzuk komikiaren bidez jaso daitezke. Narrazio bakoitza planeta bat da, eta guztiek batera unibertso bat eratzen dute. Planeten izenak erromatar mitologiako jainkoetatik datoz, eta horietako bakoitza ezaugarri bati lotzen zaio. Kasu honetan, Marte gerraren jainkoa da, Saturno denboraren jainkoa den bezala.

Gozatu denboran zehar egingo duzun bidaia honetaz, gaur egungo Ermua osatzen duten istorioen konstelazio oso bat aurkituko duzula.

**E**rmuko Udalak, Udal Liburutegiaren bitartez, komiki munduarekin duen konpromisoarekin jarraitzen du. Inguruneak gure historiako une ezezagunak birsortzeko aukera ematen du, eta, oraingo honetan, gertaera traumatiko batera hurbilduko gara. 230 urte bete dira Frantziako tropak Ermuko kaleetan sartu zirenetik. Frantziako armadak burdinaz eta suz suntsitu zituen hiriaren egiturak, bere historian mugarri bat jarritz. Gaur, bi mende geroago, Mikel Begoña gidoilariak eta Kike Infame marrazkilariak, Daniel Gojénola koloristarekin, une txar hura birsortu dute.

**Gidoia:** Mikel Begoña

**Marrazkiak:** Kike Infame


**Koloreak:** Daniel Gojénola

**Argitalpena:** Ermuko Udala, Hezkuntza,  
Kultura, Gazteria eta Euskera Alorra


**1. edizioa:** 2023ko abendua

**Imprimaketa:** Héctor Soluciones Gráficas

**L.G. VI 769-2023**



# MARTE EROTURIK



PARISEN, 1793KO URTARRILAREN 21EAN, 10:20EAN, GILLOTINAREN HORTZ ZORROTZA "LUIS CAPET HERRITARRAREN" LEPOAN EROPI DA. KANOEKIN IRAGARRI DA **LUIS XVI.**AREN HERIOTZA; ETA HORREK, MONARKIAREN AMAIERA ADIERAZI DU FRANTZIAN.



EUROPAKO MONARKIAK ERNE JARRI DIRA. **KARLOS IVA** ESPAINIAKO ERREGEAK, GERE LEHEN MINISTRO **MANUEL GODOY**REN BITARTEZ, 1793KO MARTXOAREN 7AN GERRA DEKLARATU DIO FRANTZIAKO ERREPUBLIKARI. KONBENTZIOAREN GERRA HASI DA.





APIRILAREN 23AN, **VENTURA CARO** JENERAL ESPAINIARRAK, MEDEBALDEKO PIRINEOETAN KANTONATUTAKO 18.000 SOLDADUK LAGUNDUTA, HENOAIA BOMBARDATU ETA BAIONARAINO ATZERAZI DITU TROPA FRANTSESAK.



ANTZA DENEZ, HEMEN HASIKO DA FRANTZIAKO TROPA ERREPUBLIKAREN GAINBEHERA AZKARRA.



VENTURA CARO JENERALA MADRILERA JOAN DA LAGUNTZA ESKE, BAINA EZEZKOA JASO DUENEZ, 1794KO UZTAILAREN 2AN DIMISIOA AURKEZTU DU. NAFARROAKO ERREGEORDE **COLOMERA KONDEAK** BETE DU HAREN POSTUA.



UZTAILAREN 24AN GERTATUTAKO ERASO ARINAREN OSTEAN FRANTSSEK IRUN, HONDARRIBIA ETA DONOSTIA HARTU DITUZTE ERRESISTENTZIA HANDIRIK GABE. HANDIK GUTXIRA TOLOSA ERORIKO DA, ETA HAN EZARRIKO DUTE KUARTEL NAGUSIA.

BIZKAIKO JAURERRIKO GOBERNUAK **COLOMERA ERREGEORDEARI** LAGUNTZEKO TERTZIO BAT BIDALTZEA ERABAKI DUEN ARREN, HERRITARREN PROTESTAK LASTER HASI DIRA, BIZKAITARRAK EZ BAITAUDE BEHARTUTA JAURERRITIK KANPO ARMA-ZERBITZURIK EMATERA.



HALA ERE, ABUZTUAREN ERDIALDERAKO HORI ERE EZ DA BEHARREZKOA: GIPUZKOA GEHIENA FRANTZIARREN ESKUETAN ERORI DA, IA ERRESISTENTZIARIK GABE, ETA AURRERANTZEAN, BIZKAIKO LURRA DEFENDATZEA IZANGO DA GARRANTZITSUENA.

ARMETARA DEITUTAKOEK, GEHIENAK NEKAZARIAK, GOGO ESKASA ERAKUSTEN DUTE; NOBLEAK ETA ELIZGIZONAK, BERRIZ, AZKAR DOAZ.

ABUZTUAREN BATEAN, ORBEK IRLUNGO SAN MARTZIAL BATAILAN PARTE HARTU, ETA ESKU BAT GALDU ZUEN. HORI DELA ETA "ERMIKO BESAMOTZA" EZIZENA JARRIKO DIOTE.

JOSE MARÍA ORBE Y ELIO NOBLE GAZTEA, JOSÉ JOAQUÍN ANDRÉS DE ORBE Y MURBUJA, VALDESPINA MARQUESAREN SEMEA, ZALDITERIAKO KADETE IZAN ZEN GIPUZKOAKO BOLUNTARIOEN BATAILOIAN INBASIOAREN HASIERATIK.



BESTALDE, ERBESTERATUTAKO ELIZGIZON FRANSESEK OZENKI EMATEN DIETE BERE OFIZIOKO LANKIDEEI FRANTZIA IRALTZAILEAN ELIZGIZONEK ETA ERLIJO-ORDENAK JASATEN ARI DIREN JAZARPENAREN BERRI.





ASALDATUTA, ERLIJIOSOEK, LAGUNTZA ESPIRITUALAZ GAIN, GERRARI ELUSTEKO BALIABIDE EKONOMIKOAK ETA MATERIALAK ERE ESKAINTZEN DITUZTE.

ABANDOKO SAN FRANTZISKOKO FRAIDEAK KARTUTXOEN FABRIKAZIOAN ESPEZIALIZATZEN DIRA, JAURERRIKO ARMATUENTZAT BI MILIOI PRESTATZERA IRITSIZ.

FRONTERA ABIATU DIRA BORONDATEZ ARMAK HARTZEKO PREST DAUDEN ERLIJIOSO ASKO. HORREN ADIBIDE DA **MANUEL ITURRIAGA**, DURANGON ERATUTAKO TERTZIOETAN PARTE HARTU ZUENA.

GIPUZKOA AZKAR ERORI DENEZ, DEFENTSA-HESIA EZARRI DA PROBINTZIA HORREN ETA BIZKAIAREN ARTEKO MUGAN. MANUEL ITURRIAGA BERE GIZONEKIN IRITSI DA DEFENTSA-KORDOI HONEN ERDIGUNERA, ERMUKO HIRIBILDURA.



EGUN BATZUK LEHENAGO,  
**TIMOTEO ROCH**  
INGENIARIAREN GIDARITZAPEAN,  
DEFENTSA-LERRO HORI  
INDARTZEKO LANAK HASI DIRA.  
ERMUA INGURUKO GOIALDEAK  
EGOKIAGOAK DIRA DEFENTSAK  
JARTZEKO HERRIGUNEA BAINO.



ERMUTIK ERREGE-BIDEA IGARTZEN  
DA, EIBARTIK BIZKAIRA SARTZEKO  
BIDE NAGUSIA.



HIRIBILDUTIK URRUN SAMAR, SALLABENTE ALDEAN,  
BIDEA MENDIEN ARTEAN DOA. ROCHEK HAN SOLDADU  
BATZUENTZAKO LUBAKIA EGITEKO AGINDU DU.

BAINA TOKIA EZ DA EGOKIA  
SODADU ASKO JARTZEKO.



LEKU GARAIETAN ERE KANOI  
BATZUK IPINTZEN DIRA.

ETA, AZKENIK, BIDEA ZANGAZ ETA HESI BATEZ MOZTEN DA,  
ETSAIEN ZALDITERIA ETA INFANTERIA IGARO EZ DAITEZEN.



HALA ERE, OBRA GEHIENAK ORAINDIK  
BUKATU GABE DAUDE, ABUZTUAREN  
28AN JOAQUÍN DE LARRINAGA  
ERMUKO POSTURA HELTZEAN.

EZ DA EZ KANPAMENDURIK JARRI, EZ  
GOTORLEKURIK EGIN, SOLDADUAK EZ  
DIRA JARRI ETA BANATU ADOSTUTAKO  
PUNTUETAN.

HONDAMENDIA!

GAINERA, HURRENGO EGUNEAN  
ONDARROATIK MEZULARI BAT  
IRITSI DA.

ISOOOO, MARTE,  
ISOOOOO!!!!

AURREKO GAUEAN  
ETSAIA KOSTALDEKO  
HIRIBILDUAN SARTU  
ETA ERRE EGIN DU.

AURREZ AURRE DAGOEN  
ETSAIAREN ZAIN GAUDE, BAINA  
ORAIN ERASOA BIZKARRETIK  
ERE JASATEKO ARRISKUAN  
GAUDE.

AURRERA EGINGO DUGU SATURIOKO  
ZUBIRAINO, ELGOIBAR ETA EIBAR  
HIRIBILDUEN ARTEAN. HAN,  
EZTARRI ESTU BAT DAGO.

ZORTE APUR BATEKIN PUNTU  
HORRETAN GELDITU AHAL IZANGO  
DUGU ETSAIA.

BOLUNTARIORIK?



MANUEL ITURRIAGA 50 SOLDADUREKIN ABIATU DA ETA SATURIOKO ZUBIAREN INGURUAN FINKATU DA.



ISILIK, NEUK ESAN ARTE!



EL GOIBAR ALDETIK ARMADA FRANTSESAREN LEHEN KONPAINIAK IRISTEN HASI DIRA.



EMON SUA!!

BLAM!

SATURIOKO ZUBI ESTUAREN PAREAN, SU EGIN ETA FRANTZIAKO INDIAR ERREPUBLIKARRAK USTEKABEAN HARRAPATU DITUZTE.

ETSIAIRI GEHIAGO DIRELA SINESTARAZTEKO ZALAPARTA ATERATZEN DUTE.


BLAM!  
BLAM!  
BLAM!  
BLAM!

JUAN HADI ETA EMON ABISUA KOMANDANTIAI!




HASIERAN TRIKIMAILLUAK ARRAKASTA DU, BAINA AZKENEAN FRANTZIAKO TROPEK AURRERA EGITEA LORTZEN DUTE, EIBAR ATZEAN UTZITA. HAN BESTE FRANTSES BATAILOI BAT DAGO KANTONATUTA.

HORRELA, ERREGE-BIDEARI JARRAITUZ, FRANTSESAK SALLABENTENKO PASABIDERA IRISTEN DIRA: HORREN ATZEAN ERMUA DAGO.



SU EGIN!



LEHEN DIBISIOA OLAERREASAKO ZUBIRA IRISTEAN, SU BIZIA ETA IRAUNKORRA EGIN DUTE.

BORROKA LATZA DA. TROPA ERREPUBLIKARRAK HIRU ALDIZ ATZERATZEN DIRA.




AUSARTENEK GOGOR EUSTEN DIOTE.

BAINA EIBARREN ZEGOEN FRANTZIAR ERRESERBA-GORPUTZA ERASOA HASI ZUTENEI LAGUNTZERA DOANEAN, ERREPUBLIKARRAK, GALERA ASKOREKIN BADA ERE, SAN LORENTZO ERMITARAINO IRISTEN DIRA.



HORIXE DA MANUEL DE RIBAS ERMUKO PARROKIAKO APAIZAREN KASUA. 70 URTE DITU, ETA ADOREZ BORROKATZEN DA.




HERRENA DENEZ, PRESO HARTU ETA TRATU BORTITZA EMAN DIOTE.



WISEZ!\*


\*APUNTATU!

ERRESISTENTZIAK AMORE EMAN DU PIXKANAKA, ARRATSALDEKO SEIAK ALDERA ARMADA FRANTZIARRA ERMUAN SARTU ARTE.





VALDESPINAKO MARKESA, BERE JAUREGITIK  
ATERATZEN DA, ESKOLTA HARTUTA,  
DURANGORA BIDEAN.



JENDE XUMEENAK AHAL DUEN  
MODUAN IHES EGITEN DU.



TROPA INBADITZAILEEK OHIKO  
MODUAN JOKATZEN DUTE.

ARPILAKETAK...

ETA FUSILAMENDUAK DAUDE.

*Blas Urusta Arisnavarreta, Manuel Rivas Recondo, Martín San Martín,  
María Antonia San Martín, Bautista Arancibia, Domingo Zubizarreta,  
Andres Azcarate, Joseph Eguiguren, Francisca Odriozola, Juan Antonio  
Echevarria, María Martina Goronsarri, María Ana Arguiarro, Andres  
Uzaguirre, Maria Antonia Aguinaga, Pedro Abendibar, Joseph Telleria,  
Jacobo Gomiciaga*

ETA, AZKENIK, SU EMATEN DIETE  
HERRIKO ETXE GUZTIEI.

BI BURDINOLA ETA LAU ERROTA  
ERE KISKALI EGITEN DITUZTE.



KALE NAGUSIAK, ARTEKALE ETA GOIENKALE, SUGARREN BAZKA DIRA.



ZAZPI ETXE BAINO EZ DIRA ZUTIK GERATZEN. HORIEN ARTEAN VALDESPINA JAUREGIA. HAPLANDUZKO HARRI EDERREAN ERAIKITA DAGOENEZ EZ DU SUAK HARTZEN.



ETXE ASKO ERRE DIRA. EZ DU ZERIKUSIRIK ORAIN DELA SEI URTE ZENAREKIN.

JOVELLANOS\*



\*JOVELLANOS 1791IN IZAN ZEN ERMUAN ETA 1797AN ITZULI ZEN, SUTEA IZAN ETA HIRU URTERA.

ARTEKALEK HIRIBILDUKO ARDATZ NAGUSIA IZATEARI UTZI ETA, BARRENKALEK HARTZEN DIO LEKUA. KALE HORRETATIK IGAROKO DA, AURRERANTZEAN, ERREGE-BIDEA. ELIZA ETA VALDESPINA JAUREGIA, BIDEAREN ALDERDI BANATAN BIDEAREN GOI-ZAINDARIAK DIRA.

ARTEKALEREKIN PAREZ PARE DAGOEN GOIENKALEKO ETXERIK GEHIENAK EZ ZIREN BERRIRO ERAIKI, ETA, HAIEN ORDEZ, ESPAZIO ZABAL BAT IREKI ZEN UDALETXE BERRI BATEN AURREAN, PLAZAREN FUNTZIOAK BETEKO DITUENA.

SUTE HURA BESTE GERRA BATZUEN AURREKARI KRUDELA BAINO EZ ZEN IZAN.



ETA, BESTALDE, EHLUNKA URTE DITUEN HIRIBILDUAREN BERRERAIKUNTZA EKARRI ZUEN.

